

AZKOITIA / Haur eta Gazte Liburu Eguneko ospakizunak liburutegian. Larunbat goizean Aizkibel Liburutegia Kontzejupera eramango dute

I. Elorza

Apirilaren 2an Hans Christian Andersen idazle daniarraren jaiotzaren urtemugan, Haur eta Gazte Liburuaren Nazioarteko eguna ospatzen da 1967az geroztik. Irakurzaletasuna suspertu eta haurrek liburuekiko interesa garatu dezaten Aizkibel Udal Liburutegiak hainbat ekitaldi antolatu ditu aurren ere, haurrak liburutegira erakartzeko asmoarekin.

Andersenek idatzitako ipuinetan oinarrituriko erakusketa zabalik izango da bihar arte. Bost panelek osatzen dute erakusketa. Bertan Andersenek hamar ipuin eta hauetan oinarritutako ilustrazioak agertzen dira, Lorena Martinez Oronez ilustratzaileak egindakoak. Erakusketa honen helburu nagusia, Andersenek lan anitza eta paregabea haurrei hurbiltzea da. Haurrek paneletan dauden irudiak eta ipuinak ikusi eta irakurri ondoren, marrazketa txokoan Andersenek sortutako pertsonaien marrazkiak aurkitu eta margotu ahal izango dituzte. Bestalde, irakurketa txokoan, Andersenek ipuinak eta hauetan oinarrituriko fitxa didaktikoak, denborapasa jokoak eta abar aurkituko dituzte.

Apirilaren 8an, etzi, Aizkibel Udal Liburutegia Abarketatxo Ludotekarekin batera Kontzejupera izango da, 11:00etatik 13:00etara. Andersenek Printzesa eta ilar alea ipuinari buruzko bertso edo marrazki baten truke liburu bat jaso edota jada irakurritako liburuak aldatzea ere posible izango da.